Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Tiburtzio Olabe Zesterue

Durango, Bizkaia (1912)



Aurkibidea

Biografia



Tiburtzio Tabirako "zesterue" izan zen. 1980. hamarkadan Durangoko euskara jasotzeko asmoz Jabi Zurikaraik egindako grabazioetako bat da Tiburtzioren hau. Batik bat Durangoko herri hizkerari buruz eta Gerra Zibilean bizitakoei buruz dihardu grabazioetan. 25 urte zituela, Gerra Zibilean, Intxortan zauritu ostean, Basurtuko ospitalera eroan zuten eta 28 egun egin zituen bertan. Handik Begoñara eroan zuten, itsasontziz Santanderrera eta Iparraldera joan aurretik. Bidarten egon zen igerilekuak zituen etxe dotore batean.

Zintak

DUR-045

- **Proiektua**: Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zurikarai Lejarreta, Jabi
- **Data**:
- **Iraupena**: 32 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Mendiola, Aitzol

DUR-046

- **Proiektua**: Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Zurikarai Lejarreta, Jabi
- **Data**:
- **Iraupena**: 32 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Mendiola, Aitzol

DUR-054

- **Proiektua**: IRALEren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirresarobe, Kolesti
- **Data**:
- **Iraupena**: 40 min
- **Euskarria**: VHS Standard
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Aristondo, Iñaki

Pasarteak

1. Aita bezala, saskigilea

- **Erref**: DUR-054/003
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:00:39. **Bukatu**: 00:01:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:
Aita saskigilea zen eta bera ere bai. Aulkiak, asto-otzarak, plazara barazkiak eramateko otzara zabalak... egin izan ditu. Gaztaina eta haritza erabiltzen zituen. Batzuetan lizarrak ere erabili izan ditu, emeak izanez gero; arrak hautsi egiten ziren.

2. Gerraren ondorioak gorputzean

- **Erref**: DUR-054/005
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:01:42. **Bukatu**: 00:02:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Gerra zibilean, Elorrioko bonbardaketan, metraila sartu zitzaion buruan eta gorputzaren alde bat geratu egin zitzaion. Santandertik Frantziara eraman zituzten zauritutako mila lagun inguru; han ospitalean egon zen. Bertan ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen.

3. Gerraostean "karretero" eta estraperloan

- **Erref**: DUR-054/007
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:02:41. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerratik itzuli zenean, ez zen gai saskiak egiteko. "Karretero" moduan ibili zen lanean Durangon denbora luzez, zerrautsa eta egurra garraiatzen. Estraperloan ere ibiltzen zen. Jendeak eskatutako gaiak ezkutuan eramaten zituen gurdian.

4. Gerran zaurituak Bidarteko jauregian

- **Erref**: DUR-054/009
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:04:24. **Bukatu**: 00:05:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Biarritz eta Bidarte artean dagoen eraikin batera (garai batean hotela eta kasinoa izandakoa) eraman zituzten gerra zibileko 1000 zauritu inguru. Gerora gehiago ere etortzen ziren; gaixoak, haurdun zeuden emakumeak... Zazpi mediku inguru zituzten eta denen burua Luis Bilbao zen. Ospitaleko nagusia Gonzalo Aranguren zen. Beste mediku batzuk aipatzen ditu.

5. Bizimodu hobea, baina gizatasun gutxiago

- **Erref**: DUR-054/011
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:07:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
San Antonio egunean egundo ez dela egon Urkiolan dio. Gurasoak nagusiak ziren eta, etxean ganadua zutenez, etxean geratu behar. Bost neba-arreba Ameriketara joanak ziren eta bi anai-arreba geratu ziren baserrian. Gaur egun garai batean baino hobeto bizi dela jendea dio: diru gehiago, jan eta edan hobeto... Baina jendearen izaera eskasagoa.

6. Ardoa edaten Mañaria nagusi

- **Erref**: DUR-054/012
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:07:48. **Bukatu**: 00:09:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Garai batean ardoa asko edaten zen. Horretan nagusi Mañaria omen zen. Ardo-saltzaileak esaten zuen batez beste biztanleko (helduak eta umeak guztiak zenbatuta) bi litro ardo edaten zirela bertan. Mañariarren inguruko kontuak.

7. Mañarian jokatutako apustua

- **Erref**: DUR-054/013
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:09:52. **Bukatu**: 00:11:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Mañarian jokatutako apustua. Gauerdian, tabernan zeudela, gizon batek hala bota

zuen erronka: ezetz ehun kiloko irin zakua lepora jaso, arropak ukitu barik. Zenbat diru jokatu zuten.

8. Mañariarren fama

- **Erref**: DUR-054/014
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:11:51. **Bukatu**: 00:14:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Mañariarrak "edan kontuen balientiek" ei ziren. Durangon lantegitik irten eta asko ez ziren iristen etxera, baina biharamunean zortzietarako berriz lanera. Tabernarako joera edo ardoa edateko joera zuten emakumeak ere ezagutzen zituela dio. Ebaristo Bustinza "Kirikiño"ren omenezko plaka jarri zutenean, "Guardia de asalto"koei aurre egiteko prestatu ziren mañariarrak. Guardiak beldurrez ibili ziren. Mañariarren izaera gogorra.

9. Inguruko herrietakoan izaera; lurretaren historia

- **Erref**: DUR-054/016
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:15:33. **Bukatu**: 00:17:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Esaeraren arabera: zornotzarrak "chulos", durangarrak "soberbios" eta elorriarrak "locos". Zornotzarren izaera. Abadiño edo Garai ingurukoak baketsuak. Hala ere, auzoen arteko borrokak egiten ziren, harrika. Iurretarrak Garaikoekin izaten zituzten liskarrak. Iurreta desanexionatzekotan dabilela aipatzen dute. 1926an lotu zen Durangorekin. Bertako bi okindegik Durangon ogia saltzearren ordaintzen zuten txakur txikia saihesteko izan omen zen.

10. Ermandadearen inguruko azalpenak

- **Erref**: DUR-054/018
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:17:47. **Bukatu**: 00:18:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Abereen aseguru moduan Ermandadeak egoten ziren. Durangoko Ermandadea San Roken zegoen. Ermandadearen inguruko azalpenak.

11. Lapurdiko euskararekin ezberdintasunak

- **Erref**: DUR-054/020
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:20:31. **Bukatu**: 00:21:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Iparraldera joan zirenean, hasieran ez ziren hain ondo ibili hango euskara ulertzeko. Baina Lapurdin euskara garbia hitz egiten dela dio. Desberdin esaten diren berbak: esan/erran, aurrera/aitzinera...

12. Erromerietatik dantzalekuetara

- **Erref**: DUR-054/023
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:24:03. **Bukatu**: 00:25:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

Laburpena:
Domu Santuetan hasita, erromeria egoten zen igandero Abadiñon, harik eta San Blasak pasatu arte. Erromeriak debekatu zituztenean, dantzalekuak irekin zituzten inguruetan. Trabaku. Salterain alkateak dantza lotua debekatu zuen.

13. Bekatuak ez dira existitzen

- **Erref**: DUR-054/024
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:25:17. **Bukatu**: 00:26:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Bekatuaz eta hil ostean etorriko denaz duen iritzia. Bekatua ez dela existitzen dio. Gero zer etorriko den ez duela axola dio, gurea oraingoa da eta.

14. Zeruan lekurik ba ote?

- **Erref**: DUR-054/030
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:33:47. **Bukatu**: 00:37:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Garai batean elizak zuen indarra. Bazkaldu orduko arrosariora joan behar. Sarritan

errezatzen erdi-lo. Garai bateko jendeak derrigor izan behar zuela zerua irabazita diote, baina agian ez omen da lekurik egongo. Infernuaren inguruko gogoetak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com